

Zelestina tragikomediako esaera zaharrak XXI. mendean euskaratzea: Joxe Antonio Sarasolaren itzulpen estrategiak

KARLOS DELOLMO

Nola hel diezaioke XXI. mendeko euskal itzultzaile batek XV. mendeko gaztelaniazko testu kanoniko ezagun-ezagun horri, adituek *Kixote* ospetsuaren hurrengotzat dutela jakinda? Zer motatako estrategia erabili beharko du? Zelako hizkuntz eredua aukeratu beharko du gaurko euskal irakurleari emateko orduan? Eta artikulu honen xederrako garrantzikoagoa dena, nola eman XXI. mendean euskal tradizioan ordain idatzizko ezagunik ez duten atsotitzak —eta parekide ezaguna dutenen artean, zein eman batek baino gehiagok korritu izan duenean—? Itzultzaileak, jakina, aldezturik itzulpen horren zertarakoa zehaztu beharko du: kontuan izanik itzulpena Literatura Unibertsala bilduman agertuko dela, zer hartzaile/irakurle mota izango du gogoan gaztelaniazko kanonetik euskarazko kanon itzulira ekarri behar duela gogutan? Eta testuaren beraren ezaugarriei gagozkiela, alegia, ahoz esateko

(antzezteko?) idatzita ei dagoela, ahalegin berezia egin beharko du euskarazko ahozko estilistikaren ezaugarriak eransteko. Horiek denak jakinda, Joxe Antonio Sarasolak esakune zaharrak ordaintzean erabiliriko zenbait itzulpen estrategia aztertze saio hau, nolana ere den, datozen urteotan antzeko lanak itzuli gura dituenari bidelagun gerta dakiok, baita eginkizun filologikoagoetan ere (eginkizun pragmatikoago bat ere badu: ekialdeko euskaldunei jatorrizkoa ulergarriagoa egitea). Eta zer dela-eta esaera zaharrak? Osagai linguistiko moduan halako autonomia bat dutelako testuaren barruan eta, zertan esanik ez, haietako batzuek, literatur balioen ikuspegitik, osagai poetiko ukazinarenean jabe direlako. Bestalde, oinarritzat hartzen badugu gaztelaniak eta euskarak garai hartan errealitate bera partekatzen zutela, ezin interesgarriago gertatzen da haie-

tako bakoitzak inguru bera nola zedarritzen duen aztertzea.

Amparo Hurtado Albir-en arabera, estrategiak itzultzaileak darabiltzan banako prozedurak dira (kontzienteak eta ez-kontzienteak, hitzezkoak eta berbarik bakoak, barrukoak —kognitiboak— nahiz kanpoak), itzuli ahala topatzen dituen zailtasunak ebatzi eta behar espezifikoaren arabera eraginkortasuna hobetzekoak. Hala, estrategiak zuzenean datxekio itzulpen korapiloak askatu beharrari, eta itzultzailearen jakiunde orokorrarekin zuzeneko hartu-emanetan daude. Zerikusi handia dute estrategiak itzultzeko prozesuarekin, erabakitzaileak direnez gero arazoak konpontzeko eragiketetan eta erabakitzeko prozeduretan. Gauza da, eta itzultzen entsetzen dena berehala jabetu ohi da horretaz, hori dena oso prozesu korapilatsua gertatzen dela. Jarduera horren abiaburuan, egia teoriko eta enpiriko garrantziko bat datza: itzultzailea jatorrizko testuaren hartzailea ez ezik, itzuliaren igorlea ere izatea. Bestela esanda, bi eragiketa kognitibo eta komunikatibo ditugu inplikaturik: zentzua ulertzea (analisi) eta mami hori xede hizkuntzan formulatzea (sintesia). Ikerle batzuek bi aldi horien artean beste bat ezartzen dute —hitzezko azala alde batera utzita, semantikaren alorrera igarotzean datzana—, baina tarteko horren gaineko ikerketa eta frogabideak neketsuagoak dira. Zertan esanik ez, idatzizko itzulpenari (beste hiru aldiak interpretazioari ere badagozkio-eta) laugarren prozesu bat erantsi behar diogu: egiaztatzea, zuzentzea, berrikustea. Jakina, azken hori edozein testu paratzean ere bete behar izaten du dena delako idazleak, baina itzulpengintzan oso bestelako

dimentsioa du, itzultzailearen laprastadak jatorrizko egilearen okertzat har daitezkeen neurrian.

Faseak edo aldiak deskribatuta, prozesuaren zailtasuna azaltzen hasi besterik ez dugu egin. Itzultzaile bakoitzak bere erara ibiliko ditu bide komun horiek, nork bere itzulpen gaitasunaren arabera (hau da, prozesua behar den moduan aurrera eramateko noraezeko gertatzen diren ezaguera, trebetasun eta abileziak genituzke aipagai). Hori dena oso kontu pertsonala da, oroimenean eta hartan metatutako jakiturian funtsatzen delako. Eta zelako ezagupenak behar ditu itzultzaileak? Linguistikoak (bi hizkuntzetan) nahiz bestelakoak: entziklopedikoak, tematikoak, kulturakoak, itzulgai bakoitzaren inguruabarren gainekoak...

Bestalde, esan beharrekoa da itzultzailearen ibilbidea ez dela lineala, atzera-aurrera askoko bidaia baizen; alegia, jatorrizkoa ulertzetik hura beste hizkuntzan berridaztera eta berridaztetik ulermenera ibili beharrean egongo da, inoiz ere amaitzen ez den joan-etorri batean. Zer edo zertan bada munta handikoa elkarreraginaren kontzeptua, itzulpengintzan dugu, hain suertez: fase sintaktikoa, semantikoa eta pragmatikoa ez doaz elkarren atzean eta hurrenkera antolatuan, goranzko eta beheanzko prozesamendu batean (zehatzetik orokorrera eta orokorretik zehatzera). Bestela esanda, ulermen zentrifugoa (unitatekakoa) eta zentripetua (globala) etengabeko zabuka batean egongo dira, makroegituratik mikroegiturara. Testua ez da modu linealean prozesatzen, elementu guztien elkarreraginean baizik (egitura, ezagupen estralinguistikoak...): idatzizkoan itzulpen ulermena ez da aldi

bakarrekoa, testu zati jakin bat era askotan itzul daitekeelako, baita testuaren buru erre-presentazioa aldatuko duten hainbat modutan irakurri ere. Itzulpen unitateak elkarren atzean prozesa daitezke edo itzulitako unitateetara berriro bueltatuta eta ostera ere aurrera joanda.

Faktore exogeno bat ere ez da ahaztu beharrekoa: denbora. Denboratasunaren alderdirik ikusgarriena itzulpena egiteko epea bera dugu, horrek ikaragarri baldintzatzen dituelako gainerako faktore eragile guztiguztiak. Baina horrezaz gain, denborak berak oinarritzen ditu itzulpenaren azpiprozesa elkarrengain ez-lineal hauek: analisia, interpretazioa, konparazioa, analogia, inferentzia, aukerak haztatzea, planifikatzea... Nolanahi ere den, ulermenetik beste hizkuntzan berridaztera eta alderantziz doan etengabeko joan-etorri horretan, itzulitako unitate bakoitzak ia berez lekarke lehendik itzulitako beste unitateren bat berrikusi eta bestela itzuli beharra, oinarrian denborazko harreman dinamiko halako bat ezarririk, elkarrengain etengabea. Itzulpen estrategien aldetik, esaterako, ukaezina da segituan agertzen den zerrendako berbaera horietako batzuen artean dagokeen hartu-eman zuzen-zuzeneko —itzultzaileak, igarri denez, ondo baino hobeto ezagutua eta ikusia— (“*El amor no admite sino solo amor por paga: Maitasunak ez du onartzen beste ordainik, ezpada maitasuna*”). “*Pero el amor nunca se paga sino con puro amor: Baina maitasuna ez da sekula ordaintzen maitasunaz baidzik*”), haietako bakoitza ematean erabiliriko estrategien arteko lotura —biak jatorrizko egiturarekiko fideltasunean oinarrituak—, baita euskal tradizioan jasotako esaldi ho-

rien pareko beste bat ere, “*Amor con amor se paga*”, adierazteko Gotzon Garatek jasotako “**Ogia, ordainez**” edo “**Bihotzera indarrez ezin iritsi**” esaera zaharrak eratzeko egiturekiko dagoen aldea ere.

Eredu holistikoan oinarrituriko ikerketek galdesortak, zuzenean behatzea, ikus-entzunezkoak eta baliabide informatikoak erabili izan dituzte itzultzailearen lanbidezko eginak aztertzeko; eta, ondorioztatu ahal izan dutenez, itzultzeko prozesua, jardunbidea, ez da lineala (jatorrizkoa leitzea, kontsultatzea —beste hainbat ekintza eroan ditzake barruan—, idaztea, jatorrizkora bueltatzea, itzulpena aldatzea —unean uneko unitatean zein besteren batean—, berriro jatorrizkora itzultzea). Estrategiak, jakina, mota askotakoak dirateke: jatorrizkoarekin alderatzea, elementuak azpimarratzea edo nabarmentzea, oharrak eranstea, hainbat kontsulta mota bideratzea... Itzultzaile bakoitzak bere hurrenkera darabil eta estrategiak ez dira lotuta egon ohi arazo mota jakin bat ebazteari. Informazioa prozesatzean erabilitako jardunbide batzuk kontrolatuak dira; beste batzuk, ordea, ez. Seguru asko, intuizioaren mendekoak, halako kontzientek ez direnak, sistematizatzen eta aztertzen zailagoak dira. Eredu kognitiboaren arabera, halako bi prozesatze zentro badirela postula daiteke: bat kontrolatu samarra da, bestea ez hainbeste. Bigarrenak epe luzeko oroime-
nean metaturiko datuak sintetizatzen ditu, era ez-kontzientean, jatorrizko testuari aurre egitean, gainerako kanpo elementu eragileak lagun direla. Baina bi zentro, bi prozesagailu horiei “samar” adjektiboa ezarri behar diegu gura eta gura ez, itzultzean ezer ez baita erabat kontrolatua edo guztiz kontzientziaz

kanpotikoa. Bestalde, prozesu bat arin-arina edo inkontzientea izateak itzulpen ahalegina berezkoa eta esfortzurik gabea dela lirudike, baina, bene-benetan, ezin da halakoa izan. Gauza da psikolinguistikak oso gutxi dakie-la hiztun arruntak esaldi jakin bat eratzean edo sortzean darabiltzan estrategiez; eta, are gutxiago, itzultzaile jakin batenei buruz.

Itzultzeko prozesua bestela ere azter daiteke: arazoak ezagutu eta ebazteko prozesu moduan, erabakiak hartu eta estrategiak erabakitzekeo jardunbide erara. Itzulpen arazoak ebazteak estrategiak eta teknikak erabili beharra dakar ezinbesteko bidaide, eta zertan esanik ez, erabaki behar noraezeko bat. Itzulpen teknikak eta estrategiak guztiz baldinpetzen dute emakaria, baina estrategia jakin bat edo besteren bat zergatik erabiltzen den enpirikoki ez dago oso ikertuta, eta mota honetako lanek argi apur bat egin dezakete, zuhur-hitzen aztergaia oso unibertso zedarritua denez gero. Noiz egiten dio aurre itzultzaileak itzulpen zailtasun edo arazo bati? Ikertzaile batzuek dioskutenez, bestela baitakoan, automatikoki, elementuak behin-behinekoz itzultzen ez dituen bakoitzean. Zein elementu diren arazotsu, jakina, itzultzaileen arabera aldatzen dira, baina kanpotik behatuta, erraz igartzekoak dira: etenaldiak, omisioak, zuzendu beharra, estrategia motaren batera jo beharra... Automatikotasunik ez hori beharkizuna da denboran halako urrun dagoen testu bateko atsotitzak garai bereko altxor idatzi ezagunik ez duen hizkuntza batez emateko uanean. Bestela esanda: esakune zahar hauetako bakoitza ebazkizuntzat jo dezakegu, itzulpen arazotzat. Eta haietako bakoitzak barruko nahiz kanpoko estrategiak abian jartzeko

eskatu dio Sarasolari (bilaketa dokumentalak —jatorrizko zentzua argitzeko eta euskarazko esaera bildumetan ordain ezagunak topatzekoak—, parafraseatzea, laguntza mnemoteknikoak, testuinguruan bestela txertatzea edo hura birmoldatzea...). Azterkizun dugun eremuan itzultzaile bakarra eta oso arazo mota jakina izateak ez dakar baitzepadako ondorioztat ebatzi beharrekoaren eta strategiaren artean harreman unibokoa izaterik: arazo mota beraren aurrean, hainbat estrategia erabili ditu *Zelestinaren* itzultzaileak.

Itzultzaileen erabaki bakoitzak eragina du alderdi globaletan (metodoren bat ala beste bat erabiltzea, lana planifikatzea...) nahiz itzulpen unitateen osagai makroegiturazkoekin eta mikroegiturazkoekin. Eta prozesuaren beraren ezaugarri ez-lineal eta elkarreragileen ondorioz, itzultzaileen gogo, ezaguera, etengabe aldatuz doa, estrategiak erabiltzearen ondorioz (informazio zabalagoa eskura jarri eta arazoak konpontzen laguntzen dutenez gero) nahiz beste eragile batzuen eraginez (testuak emaniko argibide berriak, beste testu zatietan berez topatutako soluzioak edo proposamenak...): lehen itzulirikoak edo behin-behinekoz emanak nahiz itzuli gabe utzitako zatiak itzuli, zuzendu edo berridazteko asmoz atzera egitea dugu horren erakusgarri nabarmenena. Bestaldetik, itzultzailea erabakiz doa, eta erabaki mota ezberdin horiek itzultzeko prozesuaren faseetan eragina izaten dute: elementu bat nola interpretatu, zein dokumentutan begiratu, nola birformulatu edukia (alegia, itzulpen teknika jakin bat...). Erabakitzekeo gaitasuna eta horren tasunak itzultzaile adituaren ezaugarri nabarmen-nabarmenak

dira: zenbat eta itzultzeko gaitasun handiagoa, orduan eta erabaki kopuru handiagoa eta erabaki ez-linguistiko gehiago. Itzultzailearen gaitasunak (ezagupenak, eskarmen-tua...), itzulpenaren helburuak, lan metodoak, itzulpen motak eta modalitateak arazo ezberdinak azalarazten dituzte eta oso bestelako estrategiak eskatzen. Gorago esan bezala, *Zelestina* testu kanonikoa Literatura Unibertsala bilduman XXI. mendean plazaratu beharrak estrategia berezi-bereziak behar zituen orokorrean (testuaren ahozketasuna, lexiko eta egitura arkaikoak, poemak) testua egokiro eman ahal izateko eta, zertan esanik ez, atsotitzei gagozkiela. Itzultzailea beti bi ugazabaren morroia izaten bada, honako honetan nabarmenagoa da: jatorrizko testua itzaltsuetan itzaltsu-itzaltsua da, baina XXI. mendeko euskara zailduagoaren baliabideekin ordaindu behar da, ezinezkoa delako XV. mendeko euskara gaur egun erabiltzea sasiko emaitza lortzeke. Kontuan izan behar dugu, grafia zaharra gorabehera, hiztun erdaldunek ere ezin dutela testua ondo ulertu gaurko gaztelaniara itzuli ezik badute; bestela esanda, gaurko hiztunak itzulpen ariketa baten beharra du gaztelaniaz ulertuko badu. Beraz, egungo euskaratzaileak noraezko du argitze eta esplizitatze ariketa bat egitea, ezinezkoa baitzaio, guztiz, XV. mendeko euskara erabiltzea (lekukotasun ugariagoak bagenitu ere, inoiz ez genekike garai hartakoek zelan esango zuten esaera zahar jakin hura, Euskal Herrian bertan ere gaztelaniaz ezaguna izan zitekeena). Baina beste horrenbeste jazoko zaio gaurko euskaldunari *Refranes y sentencias* bildumari ekiten badio—hau da, itzuli beharra—, honako honetan ere grafia gorabehera.

Itzultzailearen gaitasun estrategikoa erabakitzailea da itzulpen gaitasuna osatzen duten azpigaitasunen multzoan, okerrak zuzendu, beste azpigaitasunen hutsuneak konpondu eta abarrerako balio duelako.

Alor honetan gogora ekarri beharrekoak dira Touryren legeak, argi-argiak direlako langai dugun alorrean: Estandarizazio Hazkorraren Legea eta Interferentziaren Legea. Lehenengoaren arabera, itzultzean ezinbestekoa da “testemak” “errepertorema” bihurtzea; alegia, jatorrizko testuko osagai berezkoa edo espezifikoa errepertorio estandarizatuago baten arabera eman ohi dute itzultzaileek, gura eta gura ez. Bestela ere baderitzote horri: Konbertsioaren Legea, hau da, jatorrizko testuko testu harremanak sarri ere sarri itxuraldatu egiten dituzte itzultzaileek xede kulturak eskaintzen dituen aukera ohikoagoen alde. Jorra xede dugun alorrean ukaezina da aukera ezagunagoen aldeko hautu behartu hori, materialki ezinezkoa zaigu-eta XV. mendeko gramatika, hiztegia eta esaera bildumak (eta horiek besterik ez, hurrengo mendeetako ekarpenik gabe) erabiltzea. Azken batean, desanbiguzioa eta halako sinplifikazio handiago bat izaten da. Bigarren legeak dioenaren arabera, sorburu testuan osagai arruntak diren alderdiak xede testura transferitzeko joera gertatzen da. Interferentzia positiboa izan daiteke (itzulpena ez da desbideratzen xede hizkuntzan ekanduzkoa den erabileratik) ala negatiboa (itzulpena ohiko testuan arruntena den erabileratik desbideratzen da). Kontua da irakurleak ikusten ez duen arren, interferentzia beti izaten dela han, ezkutuago ala ageriago; hobeto jasan ohi dugu sorburu hizkuntza edo kultura ospe handikoa denean, areago

xede kultura edo hizkuntza gutxitua delarik. Itzultzaileak bat ala bestea erabil dezake, baina biak batera ere (hau da, estandarizatzeaz gain, interferentziatzko elementuak gehitu ditzake). Touryren arabera, xede hizkuntzako arauen aurka itzultzea larrutik ordaindu ohi du itzultzaileak, nahiz eta, urtea joan urtea etorri, arautik desbideraturiko itzulpen batzuek lege edo hizkuntza erabilera berriak sortu ohi dituzten xede hizkuntzan edo kulturaren. Lege horiek, bestalde, txanpon beraren aldetzat jo daitezke, haietako bat sorburu hizkuntzari begira dagoela, besteak xede hizkuntzari edo kulturari begiratzen dio. Estandarizazioari dagokionez, zenbat eta periferikoagoa itzulpengintzaren estatusa, orduan eta areago egokitu da itzulpena eredu eta errepertorio ondo finkatuera, estandarizatuagoetara. Hau da, lege hori gizarteak baldintzatzen du. Eta ukaezina da interferentzia ere faktore soziokulturalen arabera dela: zenbat eta estatus handiagoa izan sorburu testuak eta hizkuntzak, txikiagoa xede hizkuntzan normalizatzeko joera. Dena dela, itzultzaileak unitate bat itzultzean darabiltzan estrategiak ez dira asko ezberdintzen ezerein hiztun arruntek komunikatzeko orduan mezua ematean aukeratzen dituen estrategietatik (bi-biak alde edo moldez ulergaitz gertatzeko arriskuan egoten dira). Estandarizazioaren eta interferentziaren uren artean igeri egin behar izaten du itzultzaileak, eta biek ere biek busti egiten dute, noraezean.

Itzulpen estrategien alorra berezi-berezia da, hainbat mailatakoa den aldetik. Batetik, kontuan izan beharra dago badirela hainbat motatako estrategiak. Hara hor testu mota bakoitzari ekiteko orduan erabiltzen dire-

nak, jatorrizko testua ulertzekoak: diskurtso mota bereiztekoak, testuaren egitura identifikatzekoak, informazioaren edo edukia progresioa eta kateamendua argitzekoak, ideia edo kontzeptu nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztekoak... Alegia, jatorrizko testuan bertan garatzen diren estrategiak. Jatorrizkoa xede hizkuntzan berridazteko orduan, ordea, beste estrategia batzuk abiarazten ditu itzultzaileak: adierazpen mota aukeratzea, jatorrizkoaren ezaugarrietara egokitzeak, xede hizkuntzako igorlearen eginkizunari eustekoak, sorburukoaren egilearen *alter ego* izatekoak, testuan naturaltasuna bilatzekoak, parafraseatzeko estrategiak, itzulitako unitateak berridazteko estrategiak, lagun aizunak ezagutu eta alde batera uztekoak... Bigarren sail honetako estrategien paraleloan, dokumentatzearekin zerikusia dutenak genituzke: informazioa hainbat euskarritan bilatzea, testu paraleloak erabiltzea, inferentziak egitea, bilaketak antolatzeako estrategiak, memorizatzeakoak, testua irudikatzeako estrategiak... Dena dela, lanabes horiek guztiak ez dira maila berean mamitzen. Batzuk globalak dira, ia testu osoarekin daude-eta harremanetan. Beste mota batekoak lokalagoak dira, unitate mota jakin edo prozesuaren alderdi zehatz batekin erlazionaturik daudenez gero (honako honetan legez, esaera zaharrei heltzeko orduan teknika eta estrategia bat baino gehiago antolatu beharrean egon da eta Sarasola). Azken buruan, itzulpen arazo batzuk makroarazoak dira; beste batzuk, berriz, mikroarazo, azken buruan, ez-lineala eta elkarreragilea den jardunbide baten aurrean gara. Bestalde, eta Pelloren egia dirudien arren, ez dugu ahaztu behar balite-

keela itzultzaile bakoitzak bere teknika eta estrategiak erabiltzea arazo baten aurrean, eta horiek guztiak erabat ezberdin gertatzea elkarrengandik. Arazo beraren aurrean, estrategiak aldatu egiten dira subjektuaren beharrianen arabera. Estrategien alor honetan, sail berezi bat dugu itzulpen prozesuaren eraginkortasuna eta behin-behineko emaitzak hobetzeko estrategiena: itzulpena berrikustea, zuzentzea, ezin askatuzko kopiloak atzeratu eta amaieran ebazteko estrategiak, jatorrizkoa eta itzulia alderatze-koak...

Gauza ageria denez gero itzulpen arazo-zen eta estrategien artean oso zuzeneko lokarriak direla, arazoak ebaztearen faseak, gutxi gorabehera, honela zerrenda ditzakegu: a) arazoari antzematea (itzulpen arazo berezirik ikusten ez badu itzultzaileak, ez du teknika edo estrategia berezirik abian jarriko), b) arazoa definitu eta irudikatzea, c) ebazteko estrategia aukeratzea, d) estrategia aplikatu ahal izateko informazioa antolatzea, e) balibideak erabiltzea, f) prozesua bera gauzatzea eta g) konponbidea ebaluatzea, azken urrats horretatik, beharbada, berriro ere hasi beharra izango baita, konponbidea egokia izan ez bada.

1596. urteko euskarazko *Refranes y sentencias* esaera zaharren bilduma aztertze-ko edizio kiritikoan Joseba Lakarrak dioenez, XV. mendearen amaierako espainierazko literaturan esaera zaharrak erabiltzeko joera askozaz ere errotuago zegoen literatura frantsesean edo italiarrean baino. Euskal literatura zaharraren lekukotasun gutxi heldu zaigula gauza ezagun-ezaguna da; dena dela, euskaraz ere atsotitzen inguruko kezka-ken bat bazela uste izateko bidea badugu,

Zelestina eta aipatu bilduma mendekideak diren aldetik. Jakina, ezin zedarri dezakegu esamoldeen garrantzia euskal literaturan (ahozko literaturan eta lirikan muntadunak zirela uste izateko harroina dugun arren); halere, XX. mendean bertan euskalarien azterkizunik gogoenetako bat izan dira (Mokoroa, Gotzon Garate, Kaltzakorta, Labayru institutua, Urkizu...). Azterlan honi dagokionez, ezinago egoki dugu horrelako bilduma bat eskura izatea, aipatu dugun denborazko hurbiltasun horren ondorioz oso bide emankorra ematen baitu bilduman zerrendaturikoen morfojosquera itzultzaileak XXI. mendean aukeratu dituen soluzio morfosintaktikoekin erkatze-ko. Euskarazkoen bildumarik ospetsuena Oihenartena dugu, XVI. mendekoa. Lakarrarren arabera, erretra bildumak “16. mendearen akabuko eta 17. mendearen hasierako literatur molde” nagusietakoak ditugu mende-erdi oso batean eta ia lurralde letradun guztietan. Axularrek “erran komunak” oso langai berebizikotzat zituen. Garai horretatik aurrera euskal hiztegi-geleek paratutako lanetan oso zama agerikoa izan dute atsotitzek, alegia, paremiologiak. Beraz, *Zelestina*ko erran komunak ordaintzeko estrategiak antolatzean, ezinbestekoa izan du Joxe Antonio Sarasolak esaera zaharren bildumetara jotzea, eta berberak aitortu bezala, batez ere Gotzon Garatek bildutakoetara jo du. Soil-soilik eskuarte-ko erabili izan dituen materialen artean jatorrizkoak emateko euskal tradizio-ko ordain egokirik topatu ez duenean jo du berberak ordainak asmatzera.

Paremiologia konparatuak erakusten duenez, kultura jakin bateko gizakiek haien bizi eskarmentua bildu eta irakaskizun ge-

roko belaunaldiei esaera zaharren bidez ondareztat uzteko jardunbidean inguraturiko erreperitorioak, aldez edo moldez, komunak dira, edukien aldetik, ezen ez formaz, geografiaren edo historiaren ikuspegitik elkarrengandik urrun diren herrien artean. Zertan esanik ez dago, hurbiltasun geografiko eta historikoa partekatzen dituzten hizkuntzen artean errazago gerta daiteke eduki aldetiko kidetasuna gertatzea. Kultura batetik bestera hizkuntz unitateak itzultzean sor daitezkeen arazoetako batzuk errazago gaindi daitezke hitzen mailatik atsotitzaren mailara igarotzean. Larregizkoa izan liteke errefrau bildumak goitik behera itzulgarriak direla adieraztea, baina ez da gehiegikeria esatea erran zaharrik ezagunenak komunak direla hizkuntza askotan, formaz zein edukiz. Errefrauen eta esaeren artean bereizten dute aditu batzuek: errefrauak erraz igarotzen dira hizkuntzatik hizkuntzara; esaerak, ordea, ez. Dena dela, zer da *Zelestinan* agertzen den “*las paredes han oídos*” esaldia? Egileak berak “*como dicen*” esamoldeaz aurkezten du, hau da, XV. mendean irakurleek edo hiztunek sano ezaguna zutela iradokitzen digu. Beharbada esaera besterik ez bide zen sorburuko lekuan eta garaian; gaur egun, ordea, atsotitz bihurtuta dago hainbat berbetatan. Hizkuntzatik hizkuntzarako esportazio-inportazio horien lekuko izaten da hizkuntza horietako batean elkarren antzekoak diren esamoldeak beste hizkuntzaren batean ere biak agertzea; esate baterako, arestian aipaturiko “*No es oro quanto reluze: Ez dauka zertan urrea izan distiratzten duen guztiak*”, “*No es todo oro quanto amarillo reluze: Ez eta urre ere distiratzten duten gauza*

hori guztiak”. Lerratze linguistiko horietan beste gertaera jakingarri bat izaten da: errefrau batzuk errimatuak izatea. Eta lantzean behin, errima moduren bati eutsi ohi diete batetik bestera igarotzean: “*A dineros pagados, brazos e piernas quebrados: Kobratu arte larri, kobratutakoan nagi*”. Ageri-agerikoa da errimak lagundu egiten duela bai atsotitza beregain bihurtzen, bai eta oroimenean gordetzen. Eta bi ezaugarri horiek oso arruntak dira mundu zabaleko ahozko literaturetan. Jakina, bilakatze hori ez da berez agitzen beti, alegia, errimek ez diete beti-beti eusten. Bai, berriz, esaerek diskurtsoan duten autonomia mailari. Batzuetan, lexiko aldetik antzekotasunak izaten dira hizkuntzen artean (ez bakarrik eskuartearen darabiltzagun hauei gagozkiela), adibidez: “*¿Adónde yrá el buey que no are?*”: **Nora joango da idia goldera ez bada?**; edo gaztelaniazko “*Aunque la mona se vista de seda*”, latinezkoak eta alemanezkoak ere animalia bera aipatzen baitute (euskaraz ere badu bertsiorik: “**Ziminioa xapeletan ere zimino**”). Guztiarekin ere, idatzizko lekukotasunik zaharrenean ere atsotitz moduan agertzen denerako, zilegi dakiguke pentsatzea esamoldea dena delako berbetan sustraitu samar dagoela. Dena dela, itaun nagusiak erantzuteke dirau: kalko linguistiko hutsen aurrean gaude? Ezin behar bezala erantzun, baina bada atsotitz bat, *Zelestinan* ere jaso, jatorri ezagun-ezagunekoa eta hainbat hizkuntzatan agertzen dena, eta itzulpenak halakoetan jokatu ohi duen eginkizuna ondo agerian hartzen du: “**Enara batek ez du egiten uda**”: “*Una golondrina no hace verano*”, “*Eine Schwalbe macht noch keinen Sommer*”, “*Une hirondelle no fait pas*

le printemps”, “*One swallow does not make a summer*”, “*Eene zwaluw maakt jeen zorner*”, “*Ein Swala jör ingen Sommar*”... Aristotelesengandik letorke, *Nikomakorentzako etika* lanetik, Esoporen bitartez Europako hizkuntzetara heldua. Azken honi dagokionez, ia aldaketarik barik igaro dela egiaztatzen da. Beste zenbaitetan, aldatuz joaten dira, Eszopionen “*Hosti non solum dandam esse viam ad fugiendum, sed etiam muniendam*” esaera “*A enemigo que huye, puente de plata*” bihurtu zen gaztelaniaz; ingelesez eta alemanez, ordea, “urrezko zubia” aipatzen dute. Euskaraz zubia kandela egin zigun baten batek: “**Aerioari sarritan kandela bigaz argi egin behar zaio**”. Zenbait atsotitzen gainean uste sendoa izan dezakegu, batzuk itzultzaile bakar batek eginiko bertsioreen bidez heltzen diren arren herri xeheak barreiatu eta gorde (ala ahaztu) ohi dituela, *Bibliaren* bidez munduan zehar hizkuntza kristautu gehienetan jazo legetxe, esaera erlijioso ugariak ere bere egin ditu—eta hitzun xeheak, entzunaren eta sinestearen poderioz.

Adituek *Zelestinan* sakon ere sakon aztertutako alorra dugu erran zaharrena: neurketak egin izan dituzte, kapituluko eta 100 lerroko zenbat agertzen diren argitu nahian. XIII. kapitulutik aurrera gutxiago izatetik abiatzen dira ikerlari batzuk esateko tragikomediak egile bat baino gehiago izan zituela. Kontua da, dena dela, ekitaldien artean ezberdintasun handiak direla luzera aldetik; beraz, alderaketa matematiko horrek argi apur bat egin arren, kontuz erabili beharrekoa da, askoz ere egokiagoa baitirudi lerroen arabeko neurketa, kapitulu mugak alde batera utzita. Euskarazko itzul-

penean ere argi ikusten denez, zenbait zatitan 100 lerroko ia 8 esaera zahar agertzen dira. Eta kontuan izan beharrekoa da gutxi gorabehera 444 eta 446 atsotitz “kanoniko” edo onarturen gainean berba egiten dugula.

Toury berriro ekarri behar dugu akordura, egileak operazionaltzat definituriko arauetara, hain suertez, itzuli ahala hartzen diren erabakietara. Arau horien artean matrizialak daude (xede hizkuntzan sorburu hizkuntzako materiala ordezkatzeko dagoen materiala antolatzeakoak, material horrek testuan duen posizioa eta testu segmentazioa gobernatzen dituztenak) eta linguistikotestualak (xede testua formulatu edo jatorrizkoa ordezkatzeko materiala aukeratzerekin erlacionatuak). Zertan aipaturik ez dago, alderdi linguistikotestualak interesatzen zaizkigu gehienbat esaera zahar hauei emandako soluzioak aztertzerakoan, baina alderdi matrizialak ere izan behar ditugu ondo begien aurrean, esaera zahar guztiak ez dituelako unitate edo segmentu beregainztat jo Sarasolak (oso gutxi badira ere).

Exotikotasunera jo beharrean, naturalizazioaren alde egin du itzultzaileak orokorrean; alegia, hizketa estandarizatu samarra erabili du, sintaxia ere naturala —kontuan izanda haietako batzuek berezko dutela sintaxi era behartu samar bat, poesiatik hurbil daudenez gero—, gaztelaniazko hitz gutxi, kalko larregirik ez —erabiliriko ordain estandarizatu horietako batzuk kalko zaharrak ote diren argitzea oso bestelako auzia da—, euskarazko oraingo usadioaren araberako puntuazioa eta euskaraz garai honetan ohikoa den esaldi zatikatzea.

Zelestinan agertzen diren zenbait atsotitz eta esamolderen itzulpenak

Gaztelaniazko osagai nagusiaren arabera, alfabeto hurrenkeran emanda doaz. Oinarritzat *Clasicos Castellanos* bildumarako Julio Cejador y Fraucak 1913ko argitalpenerako egindako edizioan agertzen den zerrenda erabili dugu, nahiz eta bizpahiru esamolde kendu beharra izan den, ezin izan ditugulako aurkitu eskuartean erabili dugun *Zelestinaren* gaztelaniazko bertsioan (itzultzaileak erabili zuena da, Crítica argitaletzekoa).

Orokorrean, eta zerrenda kanoniko horretako atsotitzei dagokienez, ondorioztatu beharra dago, orokorrean, esaera zahar edo esamolde mailako osagai gehienei ondo

